

FUNTZIONAMENDUA

FUNCIONAMIENTO

Astelehenetik ostiralera egongo da irekita, goizez eta arratsaldez, eta Etxearen helburuarekin bat datozen ekintzetarako erabili ahal izango da.

Estará abierta de lunes a viernes, por la mañana y por la tarde, y se podrá utilizar para actividades que estén relacionadas con el objetivo de la Casa.

LIBRE
IZAN
NONAH!



Emakumeon Plaza, 1
20400 Tolosa
andragora@andragora.eus
T.: 943 00 89 67

EMAKUMEEN ETXEAREN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE LA CASA DE LAS MUJERES

Udalen zein emakumeen arteko interlokuziorako eta diru laguntzen kudeaketarako Etxearen Elkarteak sortu da.

Elkarteko bazkide izateko ez da baldintza berezirik eskatuko, ez da kuotarik ordainduko eta bazkide zerrenda barne mailan geratuko da.

Se ha creado para la interlocución entre los ayuntamientos y las mujeres, y para la gestión de subvenciones la Asociación de la Casa.

No se exigirán requisitos específicos para ser socia de la Asociación, no se abonarán cuotas y la relación de socias permanecerá en el nivel interno.



ANDRAGORA

Tolosaldeko Emakumeen Etxea

Casa de las Mujeres de Tolosaldea

Maison des Femmes de Tolosaldea

Tolosaldea's Women's House

بيت نساء طولوسالديا

Casa femeilor din Tolosaldea

Дом женщин из Толосальдеа

Дом жінок з Толосалдея



HELBU RUAK

ZERTARAKO EMAKUMEEN ETXE BAT TOLOSALDEAN?

¿PARA QUÉ UNA CASA DE LAS MUJERES EN TOLOSALDEA?

Gutasun baten parte sentitzeko: eskualdeko emakume guztiei gertutasuna eta konfiantza eskaintzeko, entzunak eta ulertuak izateko, eta seguru eta babestuta sentitzeko. Etxearen parte sentitzeko, eta parte hartzeko.

Sentsibilizatorako, eta emakumeen ahalduntze feministarako gune iraunkorrek bermatzeko, hala nola, Jabetze Eskola.

Askotariko emakumeen arteko sareak eraikitzeko, eskualdeko emakume guztien indarrak bartzeko eta Mugimendu Feminista sendotzeko.

Indarkeria matxistaren aurka ikuspegi integrala lantzeko, eta eraldaketa sozialaren ikuspegitik jendarteko eremu guztietan politikoki eragiteko.

Para sentirse parte de un colectivo: para ofrecer cercanía y confianza a todas las mujeres de la comarca, para ser escuchadas, entendidas, y sentirse seguras y protegidas. Para sentirse parte de la casa, y para participar.

Para garantizar espacios permanentes de sensibilización y empoderamiento feminista de las mujeres, como la Escuela de Empoderamiento.

Para construir redes entre mujeres de todo tipo, unir fuerzas de todas las mujeres de la comarca, y fortalecer el Movimiento Feminista.

Para abordar un enfoque integral contra la violencia machista, e incidir políticamente en todos los ámbitos interpersonales desde una perspectiva de transformación social.



PRINTZIOAK

PRINCIPIOS

Anitza, irekia, multikulturala, feminista, horizontala, partaidetzakoa, eskualdearen errealitatean eragingo duena, bizia, aktiboa, hezitzailea, lotsagabea, zirikatzailea, belaunaldi artekoa, sortzailea, euskalduna, ekologikoki jasangarria, laikoa, irisgarria, harrera eta sarbide errazekoa eta jabetza publiko komunitarioduna.

Plural, abierta, multicultural, feminista, horizontal, participativa, que incida en la realidad de la comarca, viva, activa, educativa, sinvergüenza, provocadora, intergeneracional, creativa, euskaldun, ecológicamente sostenible, laica, accesible, de fácil acceso y de propiedad pública comunitaria.

ERABILTZAILEAK USUARIAS

16 urtetik gorako emakumeak. Etxearen jarduerak emakumeei zuzendutakoak izango dira, oro har, eta emakumeek etxea haiena egindakoan Etxeak herritarrei irekitako jarduera mistoak antolatuko ditu.

Mujeres mayores de 16 años. Las actividades de la Casa se dirigirán a las mujeres en general, y una vez que las mujeres hagan suya la Casa, la Casa organizará actividades mixtas abiertas a la ciudadanía.

KUDEAKETA GESTIÓN

Etxearen kudeaketa erakundeen (etxea babesten eta finantzatzen duten Tolosaldeko udalak) eta eskualdeko mugimendu feministaren eta emakumeen taldeen artean partekatuko da. Horretarako, Lantaldeak, Talde Eragilea, Koordinazio Taldea eta Gune Zabala/Asanblada sortuko dira. Talde bakoitzak bere osaera, funtzioak eta dinamika propioak izango ditu.

La gestión de la casa se compartirá entre las instituciones (ayuntamientos de Tolosaldea que patrocinen y financien la Casa) y el Movimiento Feminista de la comarca y grupos de mujeres. Para ello, se crearán Grupos de Trabajo, Grupo Motor, Grupo de Coordinación y Gune Zabala (Espacio Abierto)/Asamblea. Cada grupo contará con su propia composición, funciones y dinámicas.

JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

ACTIVIDADES Y SERVICIOS

Jarduerak, etxean nahiz etxetik kanpora, Tolosan zein Tolosaldeko beste udalerrietan antolatuko dira, eta jardueraren arabera zaintza zerbitzua jartzeko aukera aztertuko da. Topaketak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak antolatzeaz gain, jardura kulturak, ludikoak, kirol-jarduerak, kaleko ekintza zuzenak, ekimen solidarioak eta abar ere antolatuko dira. Aholkularitza psikologiko (banakakoa zein kolektiboa) eta juridiko zerbitzuak ere eskainiko dira.

Las actividades se organizarán tanto en la Casa como fuera de ella, tanto en Tolosa como en otros municipios de Tolosaldea, y en función de la actividad se valorará el establecimiento de un servicio de cuidados. Además de organizar encuentros, talleres, cursos, jornadas, se organizarán actividades culturales, lúdicas, deportivas, acciones directas de calle, iniciativas solidarias, etc. Se ofrecerán servicios de asesoría psicológica (individual y colectiva) y jurídica.

